

Foru Aldundiak lehentasuna emango die segurtasunari eta mugikortasun jasangarriari, egingo dituen inbertsioetan

Arabako errepideetako zorua onik zaindu eta hobetzeko baliabideak bikoiztea aurreikusi du Javier Hurtadok

Foru garraio publikoa bultzatuko du, mugikortasuna bermatzeko eta klima aldaketari aurre egiteko

Gasteiz, 2019ko irailaren 27a.- Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak lehentasuna emango die errepideetako segurtasuna hobetzeari eta mugikortasun jasangarria garatzeari, egingo dituen inbertsio proiektuetan. Irizpide horiek gauzatzeko, nabarmen gehituko dira bide sarea onik zaindu eta hobetzeko baliabideak eta bultzada sendoa emango zaio foru garraioari.

Javier Hurtado Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak gaur zehaztu ditu lehentasun horiek Arabako Batzar Nagusietan, legegintzaldi honetan bere erantzukizunpeko arloetan aurrera eramango dituen politikak azaltzeko egin duen agerraldian. Hurtadok nabarmendu du zeharkako bi ardatzek osatuko dituztela lehentasun horiek: “emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunak eta interes orokorraren alde egiteko erakundeen arteko lankidetzak eta leialtasunak”.

“Bi kontzeptuak, azpiegiturak eta garraioa, kontzeptu zabalago batean batu nahi ditugu, alegia, mugikortasun jasangarri eta seguruarenean, hartara politika aurrerakoiak diseina eta gara ditzagun, gizarteari eta ingurumenari begirakoak eta garaikideak, XXI. mendeko gizarte erronkei heltzeko”, azaldu du.

Segurtasuna izango da politika horien lehenengo ardatz egituratzailea. Printzipio hori izango da oinarritzko irizpidea, zeinaren arabera lehenetsiko baitira datozen lau urteetan Arabako errepideak hobetu eta egokitzeko proiektuetan egin

beharreko inbertsioak, eta berekin ekarriko du nabarmen gehitzea bide zoruak onik zaindu, indartu eta berritzeko baliabideak. “Beharrezkoa ikusten dugu arlo horretan inbertsioa bikoiztea, 3 milioi euroko zenbatekora arte”.

“Partida horiek handituko ditugu, lehenik eta behin, eragin zuzena dutelako gidarien segurtasunean; eta, bigarrenik, mantentze lanak atzeratzeak, epe luzera begira, gastu handiagoa eragin ohi duelako. Errepideen hondatzea ez da lineala, esponentziala baizik, eta horrek, epe ertain eta luzera, segurtasuna murriztea eta kostu handiagoa dakarkio gizarteari”, erantsi du.

Ikuskatze gehiago

Foru diputatuak adierazi duenez, bide sarea zaintzeko eta errepideetan mantentze lanak egiteko inbertsio publikoak prebentziozko segurtasuna indartzen du, eta lurreko garraioa kontrolatu eta ikuskatzeko lanak erreakzioaren arloko segurtasuna areagotzen du. “Hori dela eta, konpromisoa hartzen dugu langile eta material gehiago jartzeko, erakundeak bere gain dituen ikuskatze eskumenak modu eraginkorragoan gauzatu ahal izateko.”

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren jardunak antolatuko dituen bigarren ardatza mugikortasun jasangarria izango da, herritarren eskubidetzat ulertuta eta, beraz, arabarren beharrak betetzera bideratua beti. “Hortaz, konpromiso irmoa hartzen dugu mugikortasun jasangarriaren alde lan egiteko, horrek klima aldaketa eta kutsadura geldiarazten lagunduko baitu”.

“Linea erregularren eta eskualdeko garraio berriaren bidez ematen dugun foru garraio publikoko zerbitzua hobetuko dugu, tresna berritzaileak sartuz, eta talde jakin batzuentzako beste hobari batzuk aztertuko ditugu. Helburua bikoizta da: ibilgailu pribatuaren benetako alternatiba bat eskaintzea, eta AFAREN eskumenen bidez planetaren berotzea geldiarazten laguntzea”, gehitu du.

Mugikortasun jasangarriaren ardatzean sartu diren ekimenetako bat da legegintzaldi honetan martxan jartzea Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Planeko lehenengo bizikleta bideak. Horren bidez, sustatu nahi da bizikleta erabiltzea ohiko garraiobidetzat, ikastetxera edo lanera joateko. “Urratsak egin behar dira garraiobide jasangarriak sustatzeko”.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erakundeen arteko leialtasuna izango dira legegintzaldian sailaren erabakiak gidatuko dituzten zeharkako bi ardatz.

Hona hemen ardatz horietako lehenengoan egitea aurreikusitako diren ekimenetako batzuk: emakumeak sar daitezten sustatzea gutxiengoa diren saileko zerbitzuetan, laneko arropa egokitzea emakumeek betetzen dituzten lanpostuetan, berdintasun gaietako buruzko barneko prestakuntza indartzea eta foru garraioaren emakidadun diren enpresek generoari loturiko klausulak betetzen dituztela zaintzea.

Erakundeen arteko lankidetzaren eta leialtasuna

Diputatua erakundeen arteko lankidetzaren eta leialtasunaren alde ere agertu da, tresna gakotzat jotzen baititu arabarren interes orokorrari begira modu koordinatuan lan egiteko. Hurtadok jakinarazi du bilera bana eskatu zaiela Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eta Ekonomia Garapenaren Sailari, interes komunekoa aztertzeko, eta iragarri du harremanetan jarriko direla Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiekin eta mugakide diren beste lurralde batzuetako erakundeekin ere.

“Bokazio horrek berak gidatuko ditu Arabako toki erakundeekin eta Espainiako Gobernuarekin izango ditugun harremanak ere”, adierazi du.

Puntu horretan, adibidetzat jarri ditu erakundeen arteko leialtasunaren eta lankidetzaren bidez lortu ziren emaitzak iragan astean Sustapen Ministerioko eta Adif-eko arduradunekin izandako bileretan, zeinak egin baitziren hainbat gai lantzeko, hala nola Armiñongo korapiloaren gaitasuna handitzeko proiektuak arintzea, Pobes eta Manzanosko trenbide pasaguneak kentzea eta AHTaren obrek Aramaio inguruko zenbait errepidetan eragin dituzten kalteak konpontzea.

Hurtadok, hitzaldia amaitzeko, gonbit egin du batzarkide taldeekin elkarrizketan jarduteko. Izan ere, adierazi duenez, azpiegituren eta mugikortasunaren arloko politikak “egiturazkoak dira, lurralde historikoaren politikak dira, adostasun zabal eta sendoak eskatzen dituzten politikak dira. Errepideen garapena eta garraio publikoa ez dira diputatu baten kontua, ez eta alderdi batena edo agintaldi batekoa ere; epeetan eta akordioetan malgutasunez jokatu beharra dago”.